



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Prensa-oharra

Bilbo, 2014ko apirilaren 1a

SOPELA ETA URDULIZ ARTEKO METRO BILBAOKO TRENBIDEA BERRITZEKO LANAK ESLEITU DITU BGPk

- **Guztira 1.444.000 euroko zenbatekodun lanak esleitu dira.**
- **18 hilabetez garatzea aurrez ikusi da.**
- **Lanak gauzez egingo dira, Metro Bilbaoren zerbitzuan eraginik ez izateko.**
- **Kontseilu Nagusiaren bilera berean, Imanol Landa BGPko presidenteorde izendatu dute.**

BGPren (Bizkaiko Garraio Partzuergoa) Kontseilu Nagusiak gaur egindako bileran Sopela eta Urduliz udalerrien arteko trenbide zatia erabat berritzeko lanak esleitzea onetsi du, hain zuzen ere Larrabasterra eta Urduliz artekoa.

la 3 km-ko luzera duen trenbide zatia erabat berritzeko lanak izango dira. Inbertsioa 1,5 milioi euro ingurukoa izango da, eta, besteak beste, honako hauek dira inbertsio hori justifikatzeko arrazoiak:

1. Aipatutako tartean ez da horrelako jarduketarik egin 1995. urtetik.
2. Denboran zehar egin diren mantentze-jarduketen ondorioz, zuzen funtzionatu ahal izateko altuera mugatik gertu dago katenaria.
3. Isurketen ondoriozko trenbidearen balastoak berezko ezaugarriak galdu ditu eta berritu egin behar da.
4. Trenbide tarte horretako seinaleztapena ez da berritu azken urteetan, eta, hortaz, erabat modernizatu behar da.

Trenbidearen oinarria berritu eta errailak, trabesak eta seinaleak aldatzeari esker, baita esleitutako lanen artean dauden beste jarduketa txiki batzuei esker ere, tarte horretan zenbait helburu lortu nahi dira:

1. Trenek abiadura handiagoa hartzeko aukera izatea.
2. Tarteko segurtasuna hobetzea.
3. Material mugikorraren azelerazioa hobetzea
4. Bidaiariaren erosotasuna hobetzea

Lanak ekainean hastea aurrez ikusi da; horrenbestez, datorren urteko amaiera aldera amaituko dira.

Bestalde, Kontseilu Nagusiari jakinarazi zaio presidenteak Imanol Landa erakundeko presidenteorde izendatu duela (Partzuergoaren Estatutu-tako 15. artikuluan araututakoaren arabera). Postu horren eginkizun bakarra BGPko presidentea ez dagoenean hura ordeztzea da; horren truke ez da inolako lansaririk jasotzen. Landa jaunaren aurretik BGPko presidenteorde izan ziren Iñaki Azkuna (2008), Loli de Juan (2010) eta José Alfonso López (2012). Orain arte, aldiz, postua bete gabe egon da.